

Mendebal eta hego Europako hizkuntza gutxituak

Henri Giordan

Artikulu honetan mendebal eta hego Europako hizkuntza gutxituen egoeraren berri ematen da. Hasteko errealitate linguistiko ezberdinen arteko sailkapen bat egin du autoreak, eta segidan estatuz estatuko datuak eskaintzen dizkigu: Europako Elkartea, Suitza, Austria, Jugoslavia-ohia eta Albania. Horren segidan hizkuntza gutxituei buruzko zenbait erreflexio egiten da: definizioa, egoera, eskubideak, ofizialtasunaren auzia eta lege babesak, estatu batean baino gehiagotan zatikaturik dauden hizkuntzen arazoa,... Azkenik, Europan hizkuntza gutxituen egoera eta bilakabidea aztertu, zaindu eta bultzatuko lukeen erakunde baten beharra azaltzen da.

In this article, the situation of the minority languages of Western and Southern Europe is discussed. The author has first categorized the differing linguistic situations and then provides pertinent data from state to state, namely those in the European Union Switzerland, Austria, former Yugoslavia, and Albania. Subsequently, he makes several reflections on minority languages in which he touches on such matters as their definition, situation, rights, problems of official status and legal protection, etc. Finally, he calls for the need of an entity that would analyze the situation and development of Europe's minority languages as well as one that would protect and promote them.

Europa mendebalde eta hegoaldeko hizkuntzak

Europa Mendebaldean eta Hegoaldean hiru kategorია nagusi antzeman daitezke errealitate linguistikoei dagokienez:

- Dialektoak: hizkuntza "gutxitu" ofizial guztiek, nazionalak, hedadura handikoek nahiz txikikoek, ezberdinketa dialektal nabaria bizi dute, gutxi edo gehiago.

- Hizkuntzak egoera gutxituan: zenbait kasutan "gutxitu" diren hizkuntzak, beste zenbait berriz, nazioarteko garrantzia dutenak, alemaniera edo ingelesa esaterako, baina euren nazio-mugez bestaldean egoera gutxituan aurkitzen direnak: Alsaziako eta Lorenako biztanleriaren zati handi batek alemanieratik eratorriak diren dialektok erabiltzen ditu, Aostako Haraneko biztanleek, Italian, franko-probentzeraren dialektok bat erabiltzen dute eta frantziara daukate hizkuntza ofizialtzat, 1.561ean onetsi zutenetik.

- Hizkuntza "gutxituak": hizkuntza horiek ez dute, ez Europan ez beste inon, egoera nagusirik bizi erabiltzen direneko gizar-teetan. Badira euren artean hizkuntza ofizial heina dutenak (Irlandera edo Kataluniera), baita nazionala ere (Erromantxea Suitzan), baina egoera nagusirik ez dute. Ez badira kontutan hartzen etorkinez osaturiko biztanleriaren hizkuntzak, Europa Mendebaldean eta Hegoaldean, moeta horretako 17 hizkuntza ditugu: Euskara, Sardiera, Erromantxea (eta bere aldaerak, Ladinera eta Friulanera), Korsikera, Galiziera, Kataluniera, Okzitaniera, Sorabiera, Frisiera, Gagausera, Bretoiera, Kernewekera, Eskoziera, Irlandera, Yiddisher, Judu-espainiera eta Erromaniera.

Argitaratu genuen mapak Europako egoeraren berri ematen du. Bertan zenbait dialektok kanpo utzi ditugu nahita: Lallanera edo Scotsera, ingelesaren aldaera bat dena, Bablea, Galiera, Franko-probentzera, Piemontesera edo Venetiera, e.a.

Dialektok horiek bizirik jarrai dezaten ahalegintzen diren hizkuntz politikak nahasmena sortzen dute hizkuntza "gutxituen" etorkizunaren babesean. Hizkuntzalariak ezin dezake enoratu nahasmen hori hizkuntza "gutxituak" aintzatestearen aurkako diren Gobernuak sistematikoki erabili egiten dutela.

XX. mendeko Europa mosaiko bat da, bertako muga politikak ez datoztelarik bat ia behin ere muga linguistikoekin. Herriek hizkuntzen erabilera librea egiteko aukera bermatzea, horretarako egoera "gutxituan" dauden hizkuntzak erabiliz -Alsaziarrak, Lorendarrak, Flamandarrak Frantzian, Eslo-

«Europa Mendebaldean eta Hegoaldean hiru kategoría nagusi antzeman daitezke errealitate linguistikoei dagokienez: dialektok, nazioarteko garrantzia duten, baina euren nazio-mugez bestaldean egoera gutxituan aurkitzen diren hizkuntzak, eta hizkuntza gutxituak»

«XX. mendeko Europa mosaiko bat da, bertako muga politikak ez datoztelarik bat ia behin ere muga linguistikoe-kin»

vendarrak Italian eta Austrian- demokraziari dagokionez funtsezko eskaera bilakatzen da. Hizkuntza "gutxituen" etorkizuna -Euskara, Sardiera, Erromantxea, Korsikera, Galiziera, Kataluniera, Okzitaniera, Sorabiera, Frisiera, Gagauzera, Bretoiera, Kernewekera, Eskoziera, Irlandera, Yiddisha, Judu-espainiera, Erromaniera- are garrantziatsuagoa da oraindik. Hizkuntza horiek aberastasun ordezkaezinak dira, gizateriaren ondare. Ez dago botererik euren garapen egokia bermatuko duenik, galbidera kondaturik ez egoteko. Uneak definitu eta jokoan jarri du, planeta mailan, hizkuntz politika ekologikoa, zeina Amerika edo Australiako hizkuntza indigenei dagokien bezelaxe Europako¹ gure hizkuntza "gutxituei" ere badagokie.

TAULAK ²		
ESTATUA	HIZKUNTZA	HIZTUN KOPURUA
Danimarka		
Biztanleak		5 milioi
Hizkuntza ofiziala	Daniera	
Herrialdeko hizkuntza ofiziala	Alemaniera (Ifar Schleswig-a)	25.000
Herbehereak		
Biztanleak		14 milioi
Hizkuntza ofiziala	Nederlandera	14 milioi
Herrialdeko hizkuntza ofiziala	Frisiera (Frisia)	300.000
Erresuma Batua		
Biztanleak		56 milioi
Hizkuntza ofiziala	Ingelesa	55 milioi
Herrialdeko hizkuntza ofiziala	Galesera (Gales)	500.000
	Gaelikoa (Eskozia)	80.000
	Manxera (Man irla)	
	Frantsesa (Jersey eta Guernesey)	10.000

Oharra: Etorrinen komunitate handiak daude (milioi bat inguru)

(1) "Patrimoine culturel: langues en péril" izeneko lana ikus. In: *Diogenè*, 153. Zenb. (1991ko urtarrila-martxoa), 3-91 or. Hemen argitaratzen den karta Henri Giordanen lan batetatik aterea da: *Atlas des Langues d'Europe*, Editions du Seuil argitaletxeak ateratakoa.

(2) Hemen azaltzen diren datuak alde batetik Gunnemark, Erik eta Kenrick, Donald-en lan bikainetik hartuak dira *A Geolinguistic Handbook*. Kungälv: Goterna, 1985.- 286 or. Kanpo utzi ditugu Erromanieraren hiztun kopuruari buruzko datuak. M. Jean-Pierre Liégeoisek, Pariseko René Descartes Unibertsitateko Centre des Recherches tsiganeseko Zuzendariak, Europako Kontseiluak eskaturik, herri ezberdinetan sakabanaturik dauden Erromaniera-dun ijitoen kopurua zehazten dihardu.

Ez da nahiko zehatza aipatutako herrietan Erromaniera hizkuntza badagoenetz, Irlandan ezik, bertan ijitoen hizkuntza Gamoiera baita.

MENDEBAL ETA HEGO EUROPAKO HIZKUNTZA GUTXITUAK

Bengalera, Txinera, Grekera,
Gujaratiera, Hindua, Italiara,
Penjabiera, Espainiera, Urduera, e.a.

Irlandar Errepublika

Biztanleak		3,5 milioi
Hizkuntza ofiziala	Irlandera	40.000
	Ingelesa	3,5 milioi

Luxenburgo

Biztanleak		400.000
Hizkuntza ofiziala	Frantziara	400.000
	Alemaniera	400.000
	Luxenburgera	400.000

Oharra: Hiru hizkuntzak egoera ezberdinetan erabiltzen ditu biztanleriak

Alemania (RFA ohia)

Biztanleak		62 milioi
Hizkuntza ofiziala	Alemaniera	60 milioi
Herrialdeko hizkuntza ofiziala	Daniera (Scheswig Hegoaldea)	25.000
Hizkuntza gutxitua	Frisiera (Scheswig eta Oldenburg)	5.000

Oharra: Etorkinez osaturiko talde handiak turkieraz, grekeraz, eslovenieraz, serbo-kroazieraz mintzo dira.

Alemania (RDA ohia)

Biztanleak		17 milioi
Hizkuntza ofiziala	Alemaniera	17 milioi
Herrialdeko hizkuntza ofiziala	Sorabiera	20.000

Austria

Biztanleak		8 milioi
Hizkuntza ofiziala	Alemaniera	8 milioi
Herrialdeko hizkuntza ofiziala	Esloveniera (Hegoaldeko Karintia)	50.000
Hizkuntza gutxituak	Serbo-kroaziera, Hungariera, Txekera	

Suitza

Biztanleak		6,5 milioi
Hizkuntza ofiziala	Alemaniera	4,5 milioi
	Frantziara	1,3 milioi
	Italiera	700.000
Herraldeko hizkuntza	Erromantxea (hizkuntza nazionala)	40.000

Belgika

Biztanleak		10 milioi
Hizkuntza ofiziala	Nederlandera	5,5 milioi
	Frantziara	4,5 milioi
Herraldeko hizkuntza ofiziala	Alemaniera	50.000

Oharra: Bruselak eta bere inguruneak zonalde elebiduna osatzen dute (Nederlandera eta frantziara)

Frantzia

Biztanleak		54 milioi
Hizkuntza ofiziala	Frantziara	54 milioi
Herraldeko hizkuntza ofiziala	Alemaniera (Alemaniakoa eta Frantziakoa)	1,5 milioi
	Euskara	100.000
	Bretoiera	500.000
	Kataluniera	100.000
	Korsikera	150.000
	Flamendera	50.000
	Okzitaniera	2,5 milioi

Oharra: Etorkinez osaturiko talde handiek portugaleria, arabiera, berebera, Vietnamera, Italiera edota Espainiera erabiltzen dute.

Espainia

Biztanleak		39 milioi
Hizkuntza ofiziala	Espainiera	30 milioi
Herraldeko hizkuntza ofiziala	Euskara	400.000
	Kataluniera	7 milioi
	Galiziera	milioi bat

Portugal

Biztanleak		10 milioi
Hizkuntza ofiziala	Portugaleria	10 milioi

MENDEBAL ETA HEGO EUROPAKO HIZKUNTZA GUTXITUAK

Italia

Biztanleak		58 milioi
Hizkuntza ofiziala	Italiera	57 milioi
Herrialdeko hizkuntza ofiziala	Alemaniera (Tirol Hegoaldea)	200.000
	Frantziara (Aostako Harana)	50.000
Hizkuntza gutxiak	Friulandera eta Ladinera	350.000
	Alemaniera	200.000
	Frantziara	50.000
	Esloveniera	100.000
	Okzitaniera	200.000
	Sardiera	1,5 milioi
	Kataluniera	10.000
	Albaniera	50.000

Grezia

Biztanleak		10 milioi
Hizkuntza ofiziala	Grekeria	9,5 milioi
Hizkuntza gutxiak	Albaniera	100.000
	Arumainera	200.000
	Mazedoniera	90.000
	Turkiera	100.000
	Bulgariera	30.000

Albania

Biztanleak		3 milioi
Hizkuntza ofiziala	Albaniera	3 milioi
Hizkuntza gutxiak	Arumainera	
	Grekeria	
	Mazedoniera	

Jugoslavia-ohia

Biztanleak		23 milioi
Hizkuntza ofiziala	Serbo-Kroaziera (Serbia, Kroazia, Bosnia-Hertzegobina, Montenegro)	17 milioi
	Sloveniera	2 milioi
	Mazedoniera	1,3 milioi
Herrialdeko hizkuntza ofiziala	Albaniera (Kosovo)	1,7 milioi
	Hungariera (Volvodine)	500.000
Hizkuntza aintzatetsia	Slovakiera	80.000
	Errumaniera	60.000
	Errusiera (Volivodina)	450.000

Hizkuntza gutxituak	Turkiera	100.000
	Italiera	15.000
	Ukraniera	12.000

Hizkuntza "gutxituak" gizateriaren ondare

Gutxiengoaren babeserako politikak Zuzenbidezko Estatuaren existentzia aurreuposatzen du. Kopenhageko deklarazioak ospeaz ematen ditu aditzera, eta ez Europa Mendebalderako bakarrik, honako erabaki hauexek: "Partehartzen duten Estatuak aintzatatzat hartzen dute gutxiengo nazionalak dagozkien auziak ezin daitezkeela modu egokian ebatzi Zuzenbidezko Estatuan oinarrituriko egoera politiko demokratikorik gabe, sistema judizial independente eta eraginkorra edukiz". Eztabaidatzen ari da Estatuaren osotasuna gordetzeaz gain gutxiengoaren nortasuna ere babestea xede duten arau eta erakundeak sortzea.

Horretarako azpimarragarria da oinarritzko eskubide "klasikoak" ez direla aski gutxiengo bat gizarte batzuen eta Estatu batzuen politika bereganatzaileengandik babesteko: ezinbestekotzat jotzen da "eskubide kolektiboetara" jotzea. Guztia "eskubide kolektibo" horien definizioan oinarritzen da. Akordio batek orduan eta indar gehiago dauka eta horren esanetan "oinarritzko eskubideen funtzioa ez dela autonomia indibiduala bermatzera mugatzen, gizarte pluralista bermatu behar duela baizik"³. Funtsezko ideietan emandako aurrerapausu horrek ez du adierazten garatu beharrean dauden borrorak errazak izango direnik. Horri buruz, orain gutxi Frantzian "herri Korsikarra" nozioaren konstituzionaltasun ezari buruz izan den eztabaidak agerian jartzen du hitzezko kereila bat dela benetako zailtasun bat baino. Robert Lafont-ek zioen orain gutxi frantziar Konstituzioko 2. artikulua, zeinari buruzkoa baita lan hauxe, "ez dagokio nortasun kulturalari, herritarren kontzeptzio erabat politikoaren-tzako arrotza; batasuna eta indibidualtasuna ezin ulertu daitezke nozio politikotik at, inolaz ere ez nazio linguistikoen existentziatik abiatuz"⁴. Ideia esanguratsu honi "herri Korsikarra" nozioaren aurrean Kontseilu konstituzionalak emandako ezetza, hizkuntza eta kulturari buruzko lege xedapenen baieztapenarekin batera etorri da. Garapena motela bada ere gutxiengoaren eskubide kulturalen legezkotasuna aintzatesten ari dira, baita Frantzian ere, zeina, bere historia nazionala bitarteko, antzerako eskaeretatik urrunenatarikoa den.

Zentzu honetan adierazi egin behar da lanik handiena Europako gizarte guztietan funtsezko bi mugimenduren bateratzea dela. Demokraziara jotzen duen mugimendua batetik, biztanleria osoari gehiengoei dagokiena, eta gutxiengo etniko nazional autoktonoen eskubideak aintzakotzat hartzerara jotzen duena bestetik, biztanleriari dagokio orohar. Puntu garrantzitsua da bi mugimendu horiek, historian lehendabizikoz, Esta-

(3) De Witte, Bruno. "Minorités nationales: reconnaissance et protection" In *Pouvoirs*, 57. Zenb., 1991, 123. or. De Witte Italiako Konstituzioaren 2. artikulua duen formula aipatzen du (1947an bateratua) "Errepublikak aitzaetsi eta bermatu egiten ditu gizakiaren eskubide bortxaezinak, bai gizabanako bezala, bai bere nortasuna garatzen duen gizartearen barnean".

(4) Lafont, Robert. "En France: Synthèse actuelle de la situation sociolinguistique" In: Giordan, H. (ed.), *Droits linguistiques/Droits de l'Homme*. Paris: Kimé, 1992.

«Azpimarragarria da oinarritzko eskubide demokratiko "klasikoak" ez direla aski gutxiengo bat gizarte batzuen eta Estatu batzuen politika bereganatzaileengandik babesteko: ezinbestekotzat jotzen da "eskubide kolektiboetara" jotzea»

«Garapena motela bada ere gutxiengoaren eskubide kulturalen legezatasuna aintzatesten ari dira, baita Frantzian ere»

tuarekiko posizionamendu antzerakoan daudela. Kasu bietan Estatuaren eskuduntzak moldatzea da egin beharrekoa subiranotasunari buruzko zenbait zantzuren gestio amankomunerako. Prozesu horrek ekidin egiten dio Estuari gizartearen kudeaketa totalitarioa burutzeko joerak garatzea. Oreka berriak subiranotasun zantzu zenbaiten baztertearen ondorioz geroratuta dago. Europako Elkarrekin kide zituena nazio zenbaitetako joera nazionalisten desagertzea lortu du horrela. "Gutxiengo etniko-nazionalen" arazoaren kudeaketa-rako igarri daitezken xedapenak logika horren haritik doaz. Hor daude zalantzarik gabe puntu arrakastatsuenak.

Okerrean erortzeko inolako arriskurik gabe esan daiteke estatu ezberdinek aukeratuko dituzten formula instituzionalak anitz izango direla. Ezinbestekoa da, nazioarteko mailan, hizkuntza eta kultura "gutxituen" existentzia bermatzeko ekimenak aukeratzea. Bi arazo nagusi daude hemen:

- hizkuntza eta kultura "gutxituen" definizioarena, bertan hizkuntza horien zerrenda eman behar delarik, hizkuntza bakoitzari munduan dagokion lurraldearekin batera adierazita.

- nazioarte mailako neurriak hartzea, hizkuntza eta kultura horien etorkizuna ziurtatzeko.

Hizkuntza eta kultura "gutxituen" definizioa

Herrialdeetako hizkuntza eta kulturei edo hizkuntza eta kultura "gutxitu"ei buruz aritzean errealitate oso ezberdinen multzoan sartzen gara. Europako Mendebaldera mugatuz, errealitate linguistikoen hiru kategoria handiren bereizketa egin dezakegu, honakoa:

- Dialektoak: izena kultua du eta zehaztea zentzugabekeria da ezen aldatu egiten baita dialektoen arteko ezberdinketa erizpideen arabera. Garrantzizkoa da hemen kontutan hartzea hizkuntza "gutxitu", nazional, ofizial, hedadura handi nahiz txikikoek, gutxi edo gehiago, ezberdintze dialektal nabaria bizi dutela. Horrela frantzierak dialektoak baditu: Pikardera, Normandiera esate baterako; Okzitanierak gauza bera: Gaskoinera, Probenzera, Auvergnatera, e.a. Mugimendu batzuk dialektoentzako hizkuntza "gutxituen" aldeko diren neurriak ezartzea eskatzen dute: Poitevin-saintongeaiseraren eta Pikardieraren kasua da Frantzian, antzerako joerak aurkitu daitezkeelarik Europako beste estatuetan ere.

- Egoera gutxituan dauden hizkuntzak: historian zehar izandako gertakarien eraginez estatu baten hizkuntza erabiltzen

duen zenbait hiztun talde ondoko estatu batean kokaturik aurkitzen dira, eta batzuetan urrutiagoko estatu batean gainera. Alsazia eta Lorraineko biztanlegoaren kasua da hau, alemanieraz mintzo baitira, bai eta Italiako Aostako haranarena, non dialekto franko-probentzal batez mintzo diren eta frantsesa hizkuntza ofizialtzat duten 1561az geroztik. Horrelako egoera dexente dago.

•Hizkuntza "gutxituak": inon ere ez, ez Europan ez beste edonon, bere esparruko gizartean egoera nagusirik ezagutzen ez duten hizkuntzak dira. Hizkuntza ofizial estatusa dutenak badira (Irlanderan edo Katalunieran) edo nazionala (Erromantxearen Suitzan), baina egoera nagusian ez daudenak. Ez badira kontutan hartzen etorkinek osatutako biztanle taldeak, 17 dira Europa Mendebaldean eta Hegoaldean moeta honetako hizkuntzak: Euskara, Kataluniera, Okzitaniera, Sorabiera, Frisiera, Gaeliera, Bretoiera, Kernewekera, Eskoziera, Irlanderan, Yiddisheran, Judu-espainiera eta Erromaniera.

Kultura sortzeko aukeratzat hartzen bada, kanpo uzten dira gizartearen garapen sozial eta teknologikoaren funtzio bilakatuak ez diren praktika linguistikoak. Dialektoak bizirik mantentzea, zeinak bizirik dirauten gizartearen iragan egoera bat bailiren, ezinezko jomuga da, interes arkeologikoa besterik ez duena. Horrek berarekin dakarren ondorioa zera da, ez duela zentzurik aurrerago dialektotzat sailkatu diren errealitate linguistikoak aztertzeak. "Egoera gutxituan dauden hizkuntzak" garatu egiten dira estatus ofiziala duten estatuetan, aldiz egoera "gutxituan" daudenetan bizirik iraun besterik ez dute egiten dialektoen gisan. Komenigarri gertatzen da herrialde horietako biztanleriari dagokien dialektoa erabiltzeko askatasuna ematea, Alsaziarrei eta Lorendarrei alemaniera erabiltzeko aukera, Valdôtains-eko Luxenburgotarrei frantsiera erabiltzeko...

Aldiz, hizkuntza "gutxituen" etorkizuna gizateria osoari komeni zaio, ezen biztanleria jakin bati hizkuntza batenganako aukerabidea ahal bezain beste bermatzea da arazoa, inolako boterek ezin baitu bermatu beren garapena. Erakunde internazional baten lehendabiziko zeregina izango da hizkuntza horiek garatu ahal izateko egoeran jartzea, biztanleria talde horiek libreki horrela erabakitzen duten kasuetan bederen: horrek suposatzen du hainbat ekinbide martxan jartzea hizkuntza horiek tresna zientifikoz hornitzeko eta hizkuntz egoeran jasan daitezkeen aldaketen gainetik aurrera egin ahal izateko. Beharrezkoa da asmo hori garbi uztea: hizkuntzalariaren guraria hizkuntza ahalik eta garatuen ikustea da. Gurari ho-

*«Lanik handiena
Europako gizarte
guztietan funtsezko bi
mugimenduren
bateratzea da.
Demokraziara jotzen
duen mugimendua
batetik, biztanleria
osoari, gehiengoei
dagokiena, eta
gutxiengo etniko
nazional autokto-
noen eskubideak
aintzatestera jotzen
duena bestetik,
biztanleriari dago-
kiona orohar»*

*«Mugimendu
batzuk dialektoen-
tzako hizkuntza
"gutxituen" aldeko
diren neurriak
ezartzea eskatzen
dute Frantzian, esate
baterako»*

«Dialektoak bizirik mantentzea, ezinezko jomuga da, interes arkeologikoa besterik ez duena»

«"Egoera gutxituan dauden hizkuntzak" garatu egiten dira estatus ofiziala duten estatuetan, aldiz egoera "gutxituan" daudenetan bizirik iraun besterik ez dute egiten dialektoen gisan»

rrek bultza dezake, gehienez ere horrelako hizkuntzen alde egiteko ekipamendu intelektualak osa-tzera, baina ez du jakingo biztanleriaren kopuru nahikoaren atxikidura bermatzen benetan hizkuntza horiek bizi daitezen; errealitatean us-tekabe asko gertatzen baita.

Hizkuntza eta kultura "gutxituentzako" esparru sozial baten sorrera

Gizateriaren ondare zatia diren horien ahalmena bermatzearen garrantzia azpimarratu bada, beharrezko dirudi, zehazki identifikaturik edukita, ahalgarri egitea hizkuntza gutxitu horietako bakoitzarentzako esparru sozial baten sorrera.

Jakina, hizkuntza bat garapen baldintza onean izan dadin beharrezko du esparru sozial bat edukitzea kanpora begira eta ahalgarria, horixe da Jesus Royo⁵ hizkuntzalari kataluniarrek "hizkuntzaren abialdia" deritzona, Ferruccio Rossi-Landi⁶-ren analisiak berreskuratuz. "Esparru Linguistiko" hori xedapen juridikoek bermatzen dute lehendabizi, hizkuntza bakoitzaren ofizialtasuna herrialde bakoitzerako ofizial eginez. Ofizial egite horrek hizkuntza baten erabilerari balio ematen dio, balio soziala ematen dio legez definituriko elkartruke kopuru bat bermatuz. Baina ez da aski hizkuntza baten garapen ikuspegiak zabaltzeko: xedapen multzo batek bermatu ahal izango du ikuspegi horiek soilik mitikoak ez izatea.

Oso sarri, hizkuntza "gutxituen" egoerak zatiketa dialektal nabaria erakusten du, zail egiten duelarik hiztunentzako ere, hizkuntz-batasuna ikustea. Hizkuntza baten garapena ziurtatzeko, bere barne batasunaren baldintza intelektual, sozial eta politikoak sortu behar dira. Hizkuntzaren bateratze prozesu horrek ez du inolaz ere aldaera dialektalen desagertzea suposatzen: eredu bat sortzera mugatzen da "esparru linguistiko batetan", hizkuntza hitzegiten deneko herrialde multzoa hartuz⁷.

Prozesu hori funtsezkoa da. Une hori izaten da oztopotsuena ere hizkuntza "gutxituen" kasuan. Jakina, esparru linguistikoaren zatikatzea lurraldearen historia politikoaren eta bertako herrien leialtasun linguistikoko sentimentuen maneiaketa politikoaren ondorioa da beti. Azter dezagun une

(5) Royo, Jesús. *Una lengua es un mercat*. Bartzelona: Edicions 62, 1991. 185. or.

(6) Rossi-Landi, Ferruccio. *Il linguaggio come lavoro e come mercato*. Milano: Bompiani, 1968. 273. or.

batez Katalunieraren kasua, esanguratsua baita. Kataluniera da Europako hizkuntza "gutxituen" artean aurrera egitea sendokien bermatuta duen hizkuntzetako bat. Lurralde katalanofonoak lau Estatu ezberdinen menpe daude (Espainia, Andorrako Printzerria, Frantzia eta Italia) eta hainbat herrialde administraziopean: lau Espainiako Estatuan (Kataluniako eta Valentziako Generalitateak, Balear Irltako Gobernua eta Aragoako Gobernua), bat Frantzian (Langedoc-Roussillon-go Lurraldea) eta bat Italian (Sardaigniako Lurraldea).

Argi dago horrelako egoerei aurre egin behar baldin badie ez dela aski nazioarteko mailan hizkuntza gutxituen aldeko eskubideak baiestea. Ez da aski ere erakunde boteredun bat sortu eta bultzatzea Estatuaren eta gutxiengoaren nortasunaren arteko interesak adiskidetzuz. Beharrezkoa da xedapen horiek nazioarteko mailan ulertzea. Horretarako beharrezkoa da botere politiko ezberdinen eta administrazioen arteko akordioak bultzatzea -katalunierari dagokionez lau Estatu eta sei lurralde-administrazioen artean- "esparru linguistiko" homogeneoa sortzeko. Arazo horietan ekiteko nazioarteko erakunde baten zeregina, esaterako Estatuaren eta herrialdeen arteko hitzarmen bat bultzatzea izan daiteke, aipatutako hizkuntza "gutxituaren" esparru linguistiko osoan hizkuntz politika zehatz bat eman eta horri ekiteko helburuaz.

"Gutxiengo linguistikoaren behatoki" baten alde

Herrialdeetako hizkuntzek edo hizkuntza gutxituek hartu duten garrantziak agerian utzi du hizkuntza horien egoeren ikuspegi orokor bat emateko, euren dinamika jarraitzeko eta komunitate bakoitzaren arteko eta gizartearen osotasunarekin harremanbidea izateko helburua lukeen erakunde baten zerbitzua izateko interesa.

Erakunde horren beharra azpimarratu zen jada 1983 Europako Elkarteko Batzordeak bildu zituen adituen batzarrean. Horiek "behatoki" baten sorrera eskatzen zuten, bere zeregina egitasmo zientifikoaren gain eta egitasmo politikoaren gain "gutxiengoaren arazoari segimendu bat egitea izanik. Antzerako beharra igarri du Frantzian Herrialdeetako Hizkuntza eta Kulturako Kon-tseilu Nazionalak 1986. urteaz geroztik, "Dokumentazioko eta Elkartrukeko Bulegoaren" sorrera ekarri duelarik, "bere zeregina publiko zabal bati informazioa eskumenera jarritz".

Baina gurari horiek ez dira burutu. Gaur egungo erakun-

«Hizkuntza bakoitzaren herrialde bakoitzeko ofizial egiteak hizkuntza baten erabilerari balio ematen dio, balio soziala. Baina ez da aski hizkuntza baten garapen ikuspegiak zabaltzeko»

(7) Royo, Op. cit., 137. or.

«Esparru linguistikoa zatikaturik duten hizkuntzen kasuan ez da aski erakunde boteredun bat sortu eta bultzatzea, Estatuaren eta gutxiengoaren nortasunaren arteko interesak adiskidetuz. Beharrezkoa da xedapen horiek nazioarteko mailan ulertzea; eta botere politiko ezberdinen eta administrazioen arteko akordioak bultzatzea "esparru linguistikoa" homogeneoa sortzeko»

«Hizkuntza gutxituek hartu duten garrantziak agerian utzi du, euren dinamika jarraitzeko helburua lukeen erakunde baten zerbitzua izateko interesa»

deek beste zeregin batzu betetzen dituzte. Horien artean aintzindaria, Association Internationale pour la Défense des Langues et Cultures menacées (AIDLCM), Arriskutan Dauden Hizkuntza eta Kulturen Babeserako Nazioarteko Erakunde urte askoren ostean erdi geldirik dago. Minority Rights Group-ek, Gutxiengoaren Eskubideen aldeko Taldea, Londren sortua 1969an, txosten erabilgarriak argitaratzen ditu, baina bere esparruaren hedadurak, (mundu osoa), Europako arazoak bere osotasunean ikertzea ekidin egin du eta bere zeresana Europan nahiko murrizta da. Hizkuntza Gutxi-tuen Aldeko Bulego Europarrak-HIZGABE* (Dublin), 1984an sortua, Arfè txostenaren ondoren bat funtsean aholkulari zeregina betetzen du Europako Komunitateen Batzordean eta Europako Parlamentuan.

Honen eritziz, gutxiengoaren hizkuntz eskubideen behatoki baten sorrera Strasburgon Hizkuntz Eskubideei eta Gizakien Eskubideei buruzko batzarrean agerian jarritako behar bati dagokio, batzarre horretan M. Gaetano Arfè-k bere ondorioetan azpimarratzen zuenez⁸. Erakunde hori eraginkorra izatekotan esparru geopolitiko nahikoa hedatua beharko du, aldez bertan aspektu amankomunak eztaba daezinak izango lirarteke.

Behatoki horrek, lehenik zeregin teknikoa bete beharko du, hizkuntza gutxituei buruzko ikerketen egoerari dagokionez balantze bat ezartzetik hasi ahalko da, hizkuntza horien garapenerako beharrezko diren baldin-tzen premiak definitzeko. Arlo honi dagokionez ikerketen egoera arduratsua da. Hori larria da, ezen guk adierazi dugunez hizkuntza horien etorkizuna tresna intelektualeen eguneratzearen baitan dago eta horrek garapenari buruzko ezagupenak eskatzen baititu. Egiak ikerketako multzo zabal horren programazioaren erantzunkizuna Estatuaren, ikerketa erakunde handien, Unibertsitateen edota herrialdeko edo tokiko botereen borondate onaren baitan uzten da. Egoera nabarmen aldatzen da batetik bestera, hizkuntza zenbaitek ez dutelarik izen hori merezi duen ikerketa erakunderik.

Orohar, gutxiengoaren legebidezko interesak babestuko ditu, horiei buruzko hainbat datu bilduz, gaur konfidentzialki gordeak daudenak. Nahitaezkoa da ezagutza horiek ikerlarien, hezlarien, kazetarien eta, nola ez, publikoaren eskutan jartzea. Gehiengoek gutxiengoak onartu egingo dituzte eta jede

*Erredakzioaren oharra: HIZGABEren ordezkari-tza Hego Euskal Herrian EKBk darama, eta Iparraldean Pizkundeak.

kopururik handienek ezagutu ahal izango dituzte euren errealitatean, aurreritziak eta etnotipoak alde batera utziz. Behatoki horren zereginik garrantzitsuena ezarritako datuak biltzea izango da, hizkuntza gutxituen egoera zehazteko xedez, euren barne-garapenaren eta xedapen politiko, juridiko, administratibo eta praktikari buruzkoen arabera. Motibapen ekintzek horrela zehaztutakoak baloratu beharko dituzte.

Bestalde, hizkuntz eskubideen Behatoki honek gutxiengoan ordezkariak hartu beharko ditu beregan kontsulta organuaren zeregina betez. Horrela, gutxiengoan eskubide linguistikoak ezagutu behar dituztenen nazioarteko erakunde ezberdinen arteko hitzarmen bat antolatu beharko du: NBE, Unesco, CSCE, Europako Kontseilua, Europako Parlamentua, Europako Komunitateen Batzordea...

Hitzarmen hori are beharrezkoago gertatzen da erakunde guzti horiek esparru horretan erabakiak hartzen dituztenetik: eraginkorrago izateko ahalegin horiek koordinatzeko beharra da nagusia. Edozein unetan eskuhartzeko bitartekoak jarri ahal izango dira horrela, erantzunkizun zibikoa izanik gutxiengoan izate-esparruan.

"Hizkuntza gutxituen" etorkizuna gizateria osoari dagokio, ezen hizkuntzen babesa da helburua eta ez bada osotasunaren kontzientziarik hartzen desagertzera kondenaturik baitaude. Lur osoaren mailan hizkuntz ekologiazko politika bat abian jartzeko unea iritsi da, Ameriketako eta Australiako⁹ hizkuntza indigenei dagokiena eta baita Europako geure hizkuntza "gutxitu"ei ere.

Henri Giordan

*Centre National de la Recherche Scientifiqueko
Ikerketa Zuzendaria
"Mercator-France" elkarteko lehendakaria*

*Researching manager of the CNRS
President of the "Mercator-France" association*

Itzultzailea: Iñigo Agirre

(8) Arfé, Gaetano. "Conclusions". In: Giordan, H. (éd.), *Droits linguistiques/Droits de l'Homme*. Paris: Kimé, 1992.

(9) Ikus "Patrimoine culturel: langues en péril" izeneko dosierra. In: *Diogené*, 153. Zenb., (1.991ko urtarrila-martxoa), 3-91 or.

*«Arriskuan Dauden
Hizkuntza eta Kultur-
ren Babeserako
Nazioarteko Erakun-
dea urte askoren
ostean erdi geldirik
dago. HIZGABEk
funtsean aholkulari
zeregina betetzen du
Europako Komunita-
teen Batzordean eta
Europako Parlamen-
tuan»*

*«Hizkuntza gutxi-
tuei buruzko ikerke-
ten egoera ardura-
tsua da, hizkuntza
zenbaitek ez dutela-
rik izen hori merezi
duen ikerketa
erakunderik»*

*«Gutxiengoan
eskubide linguis-
tikoak ezagutu behar
dituztenen nazioarte-
ko erakunde ezberdi-
nen arteko hitzarmen
bat antolatu beharko
litzateke: NBE,
Unesco, CSCE,
Europako Kon-
tseilua, Europako
Parlamentua, Euro-
pako Komunitateen
Batzordea»*